| | | |
|---|---|---|
| **JAUN/ANDRE HORI:** | | **EXCMO\A. SR.\A:** |
| Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorriz, Gasteizen, Lehendakaritzako egoitzan, **2025eko OTSAILAREN 11n,** 10:00etan, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Honako hau izango da | | De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakaritza, a las 10:00 horas del día **11 DE FEBRERO DE 2025**, con el siguiente |
| GAI-ZERRENDA | | ORDEN DEL DÍA |
| Aurreko bileraren akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea. | 1 | Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior. |
| KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA | | DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA |
| Dekretu-proiektua, zeinaren bidez erabakitzen baita Mutrikuko (Gipuzkoa) Barrenkale kaleko 6. zenbakiko higiezina partzialki desafektatzea. Higiezin hori abenduaren 29ko 545/1995 Dekretuaren eraginpean dago, zeinaren bitartez Mutrikuko hirigune historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenaz kalifikatzeko eta hura zaintzeko babes-araubidea ezartzen baitzen. | 2 | Proyecto de Decreto por el que se acuerda la desafectación parcial del inmueble n.º 6 de la calle Barrenkale de Mutriku (Gipuzkoa), bien cultural afectado por el Decreto 545/1995, de 29 de diciembre, por el que se califica el Casco Histórico de Mutriku como Bien Cultural con la categoría de Conjunto Monumental, y se fija su régimen de protección. |

| | | |
|---|---|---|
| OGASUN ETA FINANTZA SAILA | | DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS |
| Erabaki-proposamena, baimena ematekoa entitate hauekin finantza-lankidetzarako hitzarmen bat formalizatzeko: Finantzen Euskal Institutuarekin, zenbait finantza-entitate bazkiderekin, Elkargi EBBrekin eta Luzaro EFCrekin. | 3 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la formalización de un Convenio de colaboración financiera con el Instituto Vasco de Finanzas, entidades financieras socias, Elkargi, S.G.R. y Luzaro, E.F.C. |
| GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA | | DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO |
| Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin. | 4 | Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno. |
| INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA | | DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD |
| Dekretu-proiektua, Gasteizko Mendi Garaiak kontserbazio bereziko eremu izendatzen duen Dekretua aldatzen duena, eremu hori handituz, Gasteizko Mendiak kontserbazio bereziko eremu izendapena emanez eta kontserbazio-neurriak eguneratuz. | 5 | Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se designa la Zona Especial de Conservación Montes Altos de Vitoria, ampliándose dicha zona, otorgándole la denominación Zona Especial de Conservación Gasteizko Mendiak/Montes de Vitoria y actualizando sus medidas de conservación. |

Dekretu-proiektua, Energiaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza Kontseiluko kide batzuk kargutik kendu eta beste batzuk izendatzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari jarduteko.

6 Proyecto de Decreto de cese y designación de varios miembros del Consejo de Dirección del Ente Vasco de la Energía, en representación de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen Dekretua aldatzekoa.

7 Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de los cuerpos de policía del País Vasco.

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalarekin (UNED) hezkuntza-lankidetzarako hitzarmen bat izenpetzeko, unibertsitate horretan gradu eta masterreko ikasketa ofizialak egiten ari diren ikasleek Ertzaintzan egin ditzaten curriculum barruko kanpo-praktika akademikoak.

8 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un Convenio de cooperación educativa con la Universidad Nacional de Educación a Distancia (UNED), para la realización de prácticas académicas externas curriculares en la Ertzaintza, del alumnado de dicha universidad que cursa estudios oficiales de grado y máster.

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Don Bosco Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuarekin (Don Bosco LHII) hezkuntza-lankidetzarako hitzarmen bat izenpetzeko, zentro horretan Mugikortasun Seguru eta Jasangarrirako Prestakuntzako goi-mailako zikloa egiten ari diren ikasleek Ertzaintzan egin ditzaten curriculum barruko kanpo-praktika akademikoak.

9 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un Convenio de cooperación educativa con el Centro Integrado de Formación Profesional Don Bosco (CIFP Don Bosco), para la realización de prácticas académicas externas curriculares en la Ertzaintza, del alumnado del ciclo formativo de Grado Superior de Formación para la movilidad segura y sostenible en dicho centro.

| Euskara | Zk. | Castellano |
|---|---|---|
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Universidad de Vic-Universidad Central de Catalunya (UVic-UCC) unibertsitatearekin sinatu beharreko hezkuntza-lankidetzarako hitzarmena, unibertsitate horretan gradu eta masterreko ikasketa ofizialak egiten ari diren ikasleek Ertzaintzan egin ditzaten curriculum barruko kanpo-praktika akademikoak. | 10 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Convenio de cooperación educativa a suscribir con la Universidad de Vic - Universidad Central de Catalunya (UVic-UCC), para la realización de prácticas académicas externas curriculares, en la Ertzaintza, del alumnado de dicha universidad que cursa estudios de grado y máster. |
| HEZKUNTZA SAILA | | DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN |
| Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastu-kontratu bat baimentzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan bederatzi plazatik gorako edukiera duten ibilgailuekin egiten diren zenbait ibilbidetarako eskola-garraioa finantzatzeko (Esp. C02/002/2025). | 11 | Propuesta de Acuerdo de autorización de un contrato de gasto superior a 5.000.000 de euros, para la financiación del transporte escolar para diversos itinerarios, con vehículos de una capacidad superior a nueve plazas, en los centros públicos de enseñanza de la Comunidad Autónoma de Euskadi (Exp. C02/002/2025). |
| TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA | | DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO |
| Dekretu-proiektua, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena. | 12 | Proyecto de Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo. |
| JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA | | DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y DERECHOS HUMANOS |

13

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, 2025eko ekitaldi ekonomikoan Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko bakoitzeko abokatutzaren eta prokuraren elkargoak ekonomikoki konpentsatzeko, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeak gomendatzen dizkien abokatu-laguntzako nahitaezko zerbitzuak eta doako defentsa eta ordezkaritzako zerbitzuak emateagatik (guardiako txanda, ofiziokoa eta funtzionamendu-gastuak).

Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, destinado a compensar económicamente, en el ejercicio económico 2025, a los Colegios de la Abogacía y de la Procura de cada Territorio Histórico de la Comunidad Autónoma de Euskadi, por la prestación de los servicios obligatorios de asistencia letrada y de defensa y representación gratuitas que la Ley 1/1996, de 10 de enero, de Asistencia Jurídica Gratuita, les encomienda (turno de guardia, de oficio, y de gastos de funcionamiento).

IZENDAPENAK ETA KARGU-KENTZEAK

NOMBRAMIENTOS Y CESES

LEGEBILTZAR-EKIMENAK

INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 6a.

En Vitoria-Gasteiz, 6 de febrero de 2025.

**IZPTA./FDO.: UBARRECHENA CID, MARIA.**
**GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU, JAURLARITZAREN IDAZKARI ETA BOZERAMAILEA**
**CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO, SECRETARIA Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO**